

## MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Gizarte Erantzukizunari buruzko jardunaldia egingo du gaur batxilergoko ikasleekin, herriko arazoei irtenbideak bilatzeko.

2015/03/05

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO gradu eta Oñatiko 2. batxilergoko ikasleek gogoeta eta lan egingo dute gaur egungo benetako arazoei irtenbideak bilatzeko. Arazoak gazteek beraiek identifikatuko dituzte, gizarte-erantzukizunaren ikuspegia kontuan hartuta. Hitzordua Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen Oñatiko campusean izango da. Hain zuzen, bertan burutuko da GazteRS izeneko gizarte-erantzukizunari buruzko jardunaldiaren hirugarren edizioa.

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu (GADE) ikasleek eta Oñatiko hiru institutu etako batxilergoek parte hartuko dute. Helburu nagusia gizarte-erantzukizunaren inguruko kultura bultzatzea da. Horretarako, gogoeta-jardunaldi trinkoa egingo dute hainbat esparrutako ikasleek, gairik garrantzitsuenen inguruan hausnartzeko.

Jardunaldiaren bidez honako trebetasun hauek landuko dira: benetako arazoak identifikatzea horiei irtenbidea emateko, adin desberdinetako pertsonen arteko gizarte-kohesioa bultzatzea, parte-hartzaileen artean esperientziak trukatzeko eta, azkenik, benetako arazoei elkarlanean irtenbidea aurkitzeko konpetentziak eskuratzea. Goizean zehar proposamenak garatu ostean, jardunaldiari amaiera emateko, ikasleek herriko benetako arazoei irtenbidea aurkitzeko aurkezturiko proiekturik onena aukeratu da.

### Proposamenik onenaren saria

Jardunaldia bat dator MONDRAGON UNIBERTSITATEAK gizartea eraldatzeko duen konpromisoarekin eta horren helburua da parte-hartzaileek benetako arazoak jorratu eta horiei irtenbidea ematea. Hala, taldeak osatutakoan, Oñatiko gazteek alde aurretik identifikatutako lau hobekuntza-arloetako bat –garraioa, gazteentzako jarduerak, inmigrazioa eta ezintasuna– landuko du haietako bakoitzak.

Jardunaldia gaur, martxoak 5, 08:30ean hasiko da, eta lehen zeregina gizarte-eginkizunaren esanahiari buruz hausnartzea izango da. Irizpide etikoak erabiliz, ingurunean dauden erronka nagusiei erantzuten saiatuko dira ikasleak. Ondoren, 09:30ean, diziplina anitzeko lantaldeak osatu eta herriko arazo nagusiak aztertuko dituzte.

Goizeko saioak irtenbideak lantzeko balio izango du, eta sortuko diren taldeek proposamenak asmatu eta aurkezpenak prestatuko dituzte. Arratsaldean, aurkezpen guztiak egingo dira, eta epai-mahai batek proposamen finalista bat aukeratu du landutako hobekuntza-arlo bakoitzeko. Parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak eta aztergai dagoen arazoarekin zerikusi zuzena duen eragile batek osatuko dute epai-mahaia.

Azkenik, 16:00etatik 17:00etara, jardunaldiko proposamenik onena aukeratu eta talde irabazleari sari berezia emango zaio.

